## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### Zk-6323

AGINDUA, 2002ko azaroaren 5ekoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurren arretarako zentroen sarea finkatzeko diru-laguntzak ematea arautzen duena.

Eusko Jaurlaritzak onartutako Familiei Laguntzeko Erakundearteko Planak, besteak beste, ondoko helburuak ditu: haur-hezkuntzaren mapa sortzea eta hiru urtetik beherako haurren arretarako zentroen sarea, egungo eskariari erantzungo diona, finkatzea.

Bekei buruzko agindu hau da modurik egokiena Eusko Jaurlaritzak lana eta familia uztartzeko eta hiru urtetik beherako haurren hezkuntzan laguntzeko dituen helburuak betetzen laguntzeko. Bereziki, errentarik txikienak dituzten eta orain arte egungo kuotei aurre egin ezin izanagatik lehen zikloko hezkuntza-zerbitzuetarako sarbidea mugatuta izan duten famili unitateak hartuko dira kontuan. Egungo egoeran, eta seguruenik arloa behin betiko arautu ondorengoan, famili unitateek kostuaren %30 eta %40 bitartean ordaindu beharko dute ume bakoitzeko. Gainerako %60a edo %70a zentroak berak hartu beharko du bere gain. Zentroak etorkizuneko araudira egokitu beharko du eta nahitaez abian jarriko diren finantza-programez baliatu. Famili unitateak ordaindu beharreko zatira bakarrik mugatzen da agindu honen helburua. Beraz, beka-sistema honen helburu nagusia gizarte-kohesioa lortzea eta gizarte-ezberdintasunak murriztea da eta, horretarako, hezkuntza-baliabideetarako aukera eta sarbidea eskaintzen die haurrei, euren familien erosteko ahalmena edozein izanik ere.

Egungo egoerak erakusten digu haurren zerbitzu horietara jo nahi duten hainbat famili unitatek ezin dutela egin, famili aurrekontua mugatua delako. Gainera, mugatze horrek ondokoa dakar: unitateko batek lanjarduerarik egin ezin izatea; ondorioz, diru-sarrerak ez dira behar bestekoak.

Agindu honek sorgin-gurpil hori hautsi nahi du eta, baliabide ekonomiko gutxien duenari seme-alabentzako hezkuntza eta arreta zerbitzuetara berdin jotzeko aukera emateaz gain, famili unitate horiei lehentasuna ematen die lan munduan sartzeko moduan izan daitezen. Halaber, Agindu honek lehentasuna emango die ekonomi eta gizarte maila txikiagoko inguruei eta, oro har, hezkuntza premia bereziak edo hizkuntza arloko premiak dituzten haurrei, Euskal Eskola Publikoaren

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### N°-6323

ORDEN de 5 de noviembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se regula la concesión de subvenciones para el apoyo a las familias con niños y niñas menores de tres años y para la consolidación de la red de centros de atención a la infancia para menores de tres años.

El Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias, aprobado por el Gobierno Vasco pretende, entre otros aspectos, la creación del mapa de la educación infantil y la consolidación de una red de centros de atención a la infancia para menores de tres años que responda a la demanda existente.

Se estima que esta orden de becas es la forma más adecuada para contribuir en el cumplimiento de los objetivos del Gobierno Vasco sobre conciliación entre la vida laboral y la vida familiar y sobre atención educativa a los y las menores de tres años de edad, con especial incidencia en las unidades familiares con rentas mas bajas y que hasta ahora podrían ver limitado el acceso a los servicios educativos para el primer ciclo por no poder hacer frente a las cuotas existentes. La situación actual y la que presumiblemente resulte tras la regulación definitiva del sector, es un escenario donde las unidades familiares deberán abonar entre el 30% y el 40% del costo resultante por niño o niña, y donde el restante 70% o 60% deberá ser asumido por el propio centro, el cual deberá adecuarse a la futura normativa y beneficiarse de los programas de financiación que más adelante necesariamente deberán ponerse en marcha. El objeto de esta Orden se limita a la fracción que debe ser abonada por la unidad familiar. Es por tanto, un sistema de becas que tiene como principal objetivo la cohesión social y la reducción de las desigualdades sociales ofreciendo la oportunidad y el acceso a los recursos educativos de las y los ciudadanos más pequeños, al margen del poder adquisitivo de sus familias.

La realidad actual nos demuestra que un número indeterminado de unidades familiares que desean acceder a servicios para la infancia no lo hacen por una limitación del presupuesto familiar y esta limitación supone además el que uno de los miembros de la unidad no pueda ejercer una actividad laboral con lo que los ingresos siguen siendo insuficientes.

La presente Orden pretende romper con este círculo vicioso y no solo procura proporcionar a quien de menos medios económicos dispone de un igual acceso a servicios educativo-asistenciales para sus hijos e hijas, si no que al tiempo prioriza estas unidades familiares para que se encuentren en disposición de insertarse en el mundo laboral. La Orden dará prioridad a las zonas de menor nivel socioeconómico y en general, a los niños/as con necesidades educativas especiales o necesidades de

Legearen 9. artikuluaren 2. idatz-zatian adierazten denaren arabera. Bestalde, titularitate publikoko eskolak bultzatuko dira, 2002ko otsailaren 8ko ez-legezko proposamenean ezarritakoaren arabera.

Nabarmentzekoa da lege honen izaera berezia, sortu baita gizartearen benetako eskakizuna eta arloko araudirik eza dagoenean. Beraz, 0-3 tartearen egoera egonkortzen denean eta haren funtzionamendua eta finantzazioa arautzen direnean, Agindu hau egokitu beharko da geroko egoeretara.

Horren indarrez eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluak esleitzen dizkidan eskumenei jarraiki,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Xedea

Agindu honen helburua ondokoa da: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren famili unitateei laguntzak ematea arautzea, baldin eta beren ardurapean hiru urtetik beherako haurrak badituzte eta haur horiek hiru urtetik beherako haurren arretarako erkidegoko zentroetan matrikulatu badituzte.

*2. artikulua.*– Jardueren denborazko esparrua

Diru-laguntzak 2002-2003 ikasturterako emango dira, 2002ko irailetik 2003ko uztailera bitartean, hain zuzen ere.

*3. artikulua.*– Baliabide ekonomikoak

Laguntzak 2002rako aurrekontu orokorraren partida honen kontura egingo dira: «haurtzaindegi-sarea finkatzea eta familiei laguntzea». Guztira 7.118.879 euro dira.

*4. artikulua.*– Laguntzak esleitzeko prozedura

Agindu honetan jasotako laguntzak lehiaketaren prozeduraren bidez ebatziko dira. Horrela, laguntzak emateko aurkeztutako eskabideak konparatuko dira eta horien arteko lehentasunak ezarriko dira 8. artikuluan finkatutako esleipen-irizpideak kontuan hartuta. Balorazioriк handiena lortzen dutenak soilik esleituko dira (aurreko artikuluan horretarako esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte). Famili unitate batek baino gehiagok balorazio berbera lortuz gero, baliabide ekonomiko gutxiago dutenak lehenetsiko dira, Agindu honen 10.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

*5. artikulua.*– Onuradunak.

1.– Agindu honetan ezarritako baldintzen eta prozeduraren arabera, famili unitateak izan daitezke laguntzen onuradunak, baldin eta 2002-2003 ikasturtean haur-hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten zen-

carácter lingüístico, tal como determina la Ley de Escuelas Pública Vasca en el artículo 9, apartado 2 y se potenciarán las escuelas infantiles de titularidad pública a tenor de lo establecido en la proposición no de Ley del Parlamento Vasco de 8 de Febrero de 2002.

Es relevante el carácter excepcional de esta orden, ya que se elabora en una momento de verdadera demanda social y carencia de regularización del sector, por lo cual, y una vez estabilizada la situación del 0-3 y regulado el funcionamiento y financiación del mismo, esta misma Orden deberá adaptarse a posteriores escenarios.

En su virtud, y de conformidad con las competencias que me atribuye el artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto

Es objeto de la presente Orden regular la concesión de subvenciones para unidades familiares residentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco que tengan a su cargo niños y niñas menores de 3 años que opten por matricular a los mismos en centros de atención a la infancia para menores de tres años de la misma comunidad.

*Artículo 2.*– Ámbito temporal de las actuaciones

La concesión de subvenciones se refiere al curso 2002-2003, comenzando en septiembre de 2002 y extendiéndose hasta la finalización del mismo en julio de 2003.

*Artículo 3.*– Recursos Económicos

Las ayudas van a cargo de la partida «Consolidación de la red de guarderías y apoyo a las familias» de los presupuestos generales del 2002 con un importe de 7.118.879 euros.

*Artículo 4.*– Procedimiento de adjudicación de las ayudas

Las ayudas contempladas en la presente Orden se resolverán por el procedimiento de concurso. A tal efecto, la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de adjudicación fijados en el artículo 8, adjudicando sólo aquellas que hayan obtenido mayor valoración, hasta el agotamiento del crédito presupuestario consignado respectivamente a tal efecto en el artículo anterior. En caso de que más de una unidad familiar obtenga la misma valoración, se priorizarán las que dispongan de menos recursos económicos, según lo establecido en el artículo 10.2 de la presente Orden.

*Artículo 5.*– Beneficiarios

1.– Podrán ser beneficiarias de las ayudas, con arreglo a las condiciones, requisitos y procedimiento que se establecen en la presente Orden, las unidades familiares residentes en la Comunidad Autónoma del País

troetan matrikulatuta dauden 3 urtetik beherako haurrak ardurapean badituzte eta EAEn bizi badira.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta honen erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzultze edo zigor prozedura guztiak amaitzearen baldintzapean geratuko da diru-laguntzen eta laguntzen ematea eta, hala badagokio, ordaintzea.

*6. artikulua.*– Erakunde laguntzaileak

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzen ordainketa kudeatzeko, hauek hartuko dira erakunde laguntzailetzat: hiru urtetik beherako haurren arretarako zerbitzua eskaintzen duten zentro publikoak eta pribatuak, betiere haur horien famili unitateak gertatzen badira laguntza-deialdi honen onuradun.

2.– Arau honek erakunde laguntzaileei ezartzen dizkien betebeharrez gain, erakunde laguntzaileontzako betebeharren oinarrizko araubidea hauxe izango da:

a) Hiru urtetik beherako haurren arretarako zerbitzuari dagozkion gastuak ordaintzeko erabiltzea emandako diru-laguntza, onuradun bakoitzari emandako zenbatekoan erabili ere.

b) Laguntzak emateko baldintza edo betebeharrak betetzen direla eta eraginkorrak direla bermatzea.

c) Jasotako fondoak zertan erabili diren justifikatzea erakunde emailearen aurrean.

d) Erakunde emaileak eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fondo horiek nola kudeatu diren egiaztatzeko egin ditzaketen jarduerei men egitea.

3.– Deialdia ebatzita, Agindu honen onuraduna izan den famili unitate baten hiru urtetik beherako haurren bat inskribatua duten erakunde pribatuek ondoko konpromisoa hartuko dute bere gain: I. eranskineko hitzarmena izenpetzea, hitzarmen horren bitartez hartuko baitira erakunde laguntzailetzat. Behin Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak hitzarmena izenpetu ondoren, dagokion kopia bidaliko zaio erakunde pribatu bakoitzari. Hitzarmen hori izenpetzea ezinbesteko baldintza da Agindu honen laguntzak kudeatzeko.

*7. artikulua.*– Eskabideen aurkezpena: epea, lekua eta bete beharreko dokumentazioa.

1.– Adierazitako laguntzak eskatzeko, famili unitateek ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute ha-

Vasco que tengan a su cargo niños y niñas menores de 3 años que se encuentren matriculados en centros que ofrezcan el primer ciclo de educación infantil durante el curso 2002-2003.

2.– La concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 6.*– Entidades colaboradoras

1.– A los efectos de gestionar el pago de las subvenciones reguladas en la presente Orden, tendrán la consideración de entidades colaboradoras aquellos centros públicos o privados que oferten el servicio de atención a la infancia para niños y niñas menores de tres años, siempre y cuando las unidades familiares a las que pertenezcan dichos niños y niñas, resulten beneficiarias de la presente convocatoria de ayudas.

2.– Sin perjuicio de las obligaciones que la presente norma imponga a las entidades colaboradoras, el régimen básico de obligaciones para las mismas será el siguiente:

a) Utilizar la subvención concedida para sufragar los gastos correspondientes al servicio de atención a la infancia para niños y niñas menores de tres años en la cuantía otorgada a cada uno de los beneficiarios.

b) Verificar el cumplimiento y efectividad de las condiciones o requisitos determinantes para su otorgamiento.

c) Justificar la aplicación de los fondos percibidos ante la entidad concedente

d) Someterse a las actuaciones de comprobación que respecto de la gestión de dichos fondos pueda efectuar la entidad concedente y a las que corresponden a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

3.– Una vez resuelta la convocatoria, las entidades privadas que tengan inscrito algún niño o niña menor de tres años perteneciente a una unidad familiar que haya resultado beneficiaria de la presente Orden, se comprometerán a firmar el convenio que se adjunta como anexo I, por el que se les otorgará la condición de entidad colaboradora. Una vez que el convenio sea firmado por el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se remitirá la copia correspondiente a cada entidad privada. La firma del mencionado convenio constituye un requisito obligatorio para la gestión de las ayudas de la presente Orden.

*Articulo 7.*– Presentación de solicitudes: plazo, lugar y documentación a cumplimentar

1.– Para solicitar las ayudas indicadas, las unidades familiares deberán presentar, en el plazo de quince días

mabost eguneko epean, agindu hau indarrean sartu, eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita:

a) Eskaera formalizatzeko idaztia eta aginduzko matrikulazioa haur-hezkuntzako zentroan.

b) 2001eko errenta-aitorpenen edo baterako aitorpenaren fotokopia edo, halakorik ezean, urteko sarreren zinpeko aitorpena.

c) Hala badagokio, famili unitateko kidearen edo kideen minusbaliotasun-maila egiaztatuko duen dokumentua.

d) Familia-liburuaren fotokopia edo famili unitateko kideak egiaztatzeko agiri batena.

e) Zentroaren urteko plana, memoria eta ikasketa-proiektua, urteko aurrekontua barne hartuta (ale bana zentro bakoitzeko).

2.– Eskabideak zentroko zuzendaritzara zuzendu beharko dira eta zentroak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko ditu edo, bestela, Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein moduren bitartez igorri ahal izango dira, betiere artikulu honen lehen idatz-zatian adierazitako 15 eguneko epe horretan.

3.– Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak aurkeztu den eskabidean akats edo hutsegiteren bat dagoela edo eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumenturen bat falta dela ikusten badu, eskatzaileari jakinaraziko dio eta hamar eguneko epea emango dio akatsa zuzendu edo dokumentua aurkez dezan. Halaber, hala egin ezean Ebazpen bidez bere eskaera atzera egintzat hartuko dela adieraziko zaio. Ebazpen hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan egin beharko da. Zentro guztiek jasoko dute bertan inskribatuta egon eta eskabidea ondo osatu ez duten onuradunen zerrenda.

*8. artikulua.–* Kudeaketa Organoa eta Balorazio Batzordea.

1.– Gizarte Ongizateko Zuzendaritzari dagokio Agindu honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-zereginak egitea.

2.– Aurkeztutako eskabideak ebaluatu eta baloratzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da 8. artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuta. Batzorde hori teknikari-mailako eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzari atxikitako hiru funtzionariok osatuko dute eta, horien artean, lehendakari bat eta idazkari bat izendatuko ditu Gizarte Ongizateko zuzendariak.

3.– Bere jardueraren emaitza gisa, Batzordeak ebazpen-proposamena igorriko dio prozeduraren ebazpen-organoari. Proposamen horretan onuradunen zerrenda

contado desde el día siguiente a la publicación de la presente Orden, la siguiente documentación:

a) Escrito de formalización de la solicitud acompañado de la perceptiva matriculación en el centro de educación infantil.

b) Fotocopia de las declaraciones de la renta del 2001 o de la declaración conjunta o en su defecto declaración jurada de los ingresos anuales.

c) En su caso, documento acreditativo del grado de minusvalía de los o el miembro de la unidad familiar.

d) Fotocopia del libro de familia o documento acreditativo de los miembros de la unidad familiar.

e) Memoria, plan anual y proyecto curricular del centro en el que se incluya el presupuesto anual, un ejemplar por cada centro.

2.– Las solicitudes deberán entregarse en la dirección del centro, el cual a su vez deberá presentarlas en el Registro General del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales o bien remitidas por cualquiera de las formas previstas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas, en el plazo de 15 días que aparece en el apartado primero de este artículo.

3.– Si la Dirección de Bienestar Social advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto inexactitud, o la ausencia de algún documento de los que deben acompañar a la misma, lo comunicará al solicitante concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación o aportación, con indicación de que si así no lo hiciera se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. A cada centro se le enviará la relación de beneficiarios, con niños/as inscritos en el mismo, que hayan presentado la solicitud de forma incompleta.

*Artículo 8.–* Órgano de gestión y Comisión de Valoración

1.– Corresponde a la Dirección de Bienestar Social la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente Orden.

2.– Al objeto de evaluar valorar las solicitudes presentadas, en aplicación de los criterios establecidos en el artículo 8, se constituirá una Comisión de Valoración constituida por tres personas funcionarias con nivel de técnico/a, adscritas a la Dirección de Bienestar Social y nombradas por el Director, que a su vez designará de entre las mismas un/una presidente/a y un /una secretario/a.

3.– Como resultado de su actuación, la Comisión elevará al órgano resolutor del procedimiento, la propuesta de resolución que comprenderá la relación de bene-

barne hartuko da eta laguntzaren xede diren famili unitateak adieraziko dira, bai eta ezesteko proposatutako eskabideen zerrenda eta ezesteko arrazoiak ere.

*9. artikulua.–* Onuradunen baldintzak

1.– Famili unitateko kideen kopuruaren arabera, laguntzak eskuratu ahal izateko baldintza ekonomikoak ondoko tarteei jarraiki daude adierazita:

| Lehenengo tartea | | Bigarren tartea | | Hirugarren tartea | |
|---|---|---|---|---|---|
| Famili unitateko kideen kopurua | Errenta-mugak | Famili unitateko kideen kopurua | Errenta-mugak | Famili unitateko kideen kopurua | Errenta-mugak |
| 2 | 7.893,27 | 2 | 10.524,36 | 2 | 13.155,45 |
| 3 | 9.286,20 | 3 | 12.381,60 | 3 | 15.477,00 |
| 4 | 10.679,13 | 4 | 14.238,84 | 4 | 17.798,55 |
| 5 | 12.281,00 | 5 | 16.374,67 | 5 | 20.468,33 |
| 6 | 14.123,15 | 6 | 18.830,87 | 6 | 23.538,58 |
| 7 | 16.241,62 | 7 | 21.655,50 | 7 | 27.069,37 |
| 8 | 18.677,87 | 8 | 24.903,82 | 8 | 31.129,78 |
| 9 | 21.479,54 | 9 | 28.639,39 | 9 | 35.799,24 |
| 10 | 24.701,48 | 10 | 32.935,30 | 10 | 41.169,13 |

2.– Famili unitatearen errenta-maila finkatzeko sarrera garbiak hartuko dira kontuan eta, sarrera hauek, zerga-oinarri orokorrari famili unitateak haurra zentroan matrikulatu aurreko aldian egindako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren likidazioaren kuota likidoa kentzearen emaitzazkoak izango dira.

Aitorpen indibidualen kasuan, kalkulua bi aitorpenak batuta egingo da.

Aitorpena egin ezean, urteko sarreren zinpeko aitorpen baten bidez ordezkatu ahal izango da. Aitorpen hau Udalean egin ahal izango da eta Udaleko oinarrizko zerbitzuen txostena gaineratuko zaio.

3.– Agindu honen 7.1.c artikuluaren arabera, bizileku berean bizi diren urrituak edo mendekoak dituzten familiek halako ezaugarriak dituen pertsona bakoi-

ficiarios/as, con expresión de las unidades familiares objeto de ayuda e importe de las subvenciones propuestas, así como la relación de solicitudes que se propone desestimar y motivos de la desestimación.

***Artículo 9.–*** Requisitos de los beneficiarios/as

1.– Dependiendo del número de miembros de la unidad familiar, los requisitos económicos para acceder a las ayudas se establecen conforme a los siguientes tramos:

| *Tramo Primero* | | *Tramo Segundo* | | *Tramo Tercero* | |
|---|---|---|---|---|---|
| *N.º miembros unidad familiar* | *Límites de renta* | *N.º miembros unidad familiar* | *Límites de renta* | *N.º miembros unidad familiar* | *Límites de renta* |
| *2* | *7.893,27* | *2* | *10.524,36* | *2* | *13.155,45* |
| *3* | *9.286,20* | *3* | *12.381,60* | *3* | *15.477,00* |
| *4* | *10.679,13* | *4* | *14.238,84* | *4* | *17.798,55* |
| *5* | *12.281,00* | *5* | *16.374,67* | *5* | *20.468,33* |
| *6* | *14.123,15* | *6* | *18.830,87* | *6* | *23.538,58* |
| *7* | *16.241,62* | *7* | *21.655,50* | *7* | *27.069,37* |
| *8* | *18.677,87* | *8* | *24.903,82* | *8* | *31.129,78* |
| *9* | *21.479,54* | *9* | *28.639,39* | *9* | *35.799,24* |
| *10* | *24.701,48* | *10* | *32.935,30* | *10* | *41.169,13* |

2.– A los efectos de determinar el nivel de renta de la unidad familiar se tendrán en consideración los ingresos netos, resultantes de restar a la base imponible general la cuota líquida de la liquidación del Impuesto sobre la Renta de la Personas Físicas de la unidad familiar del período anterior al de la matriculación en el centro.

En el caso de declaraciones individuales, el cálculo será la suma de las dos declaraciones.

Si no se realiza declaración, esta podrá ser sustituida por una declaración jurada de los ingresos anuales que podrá realizarse en el Ayuntamiento y que será acompañada por un informe de los servicios de base del Ayuntamiento.

3.– Las unidades familiares con miembros discapacitados o dependientes, según lo establecido en el artículo 7.1.c, viviendo en el mismo domicilio, se les

tzeko kide bat gehiagori dagokion ponderazioa aplikatuko dute.

4.– Guraso bakarreko familien kasuan, dituzten kideak baino bat gehiago dituztela joko da.

*10. artikulua.–* Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Laguntzak esleitzeko, balorazio batzordeak hainbat puntu hartuko ditu kontuan; puntuok 0tik 25era ponderatu ahal izango ditu, ondorengo irizpideei jarraiki:

a) Maila sozioekonomikorik baxueneko eremuetan kokatutako zentroa: 5 puntu.

b) Zentro publikoa: 5 puntu

c) Zentro-proiektuaren kalitatea: 0-5 puntu.

d) Onartuen eta kanpoan geratutakoen zerrenda: 0-5 puntu (0,2 puntu itxaron-zerrendaren %1eko; 2002-2003 ikasturteko matrikularen itxarote-zerrenda zentroaren matrikula osoan oinarrituta kalkulatuko da).

2.– Famili unitate batek baino gehiagok balorazio berbera lortuz gero, baliabide ekonomiko gutxiago dutenei emango zaie lehentasuna. Baliabide ekonomiko gutxiagoko famili unitatetzat soilik jotzen dira laguntza-taularen lehen tartean daudenak. Tarte horretan daudenen artean, hauek lehenetsiko dira: famili unitateko kideen kopuruaren arabera, taulotan ezarritako errenta-mugetara gehien hurbiltzen direnak.

*11. artikulua.–* Diru-laguntzen kopurua.

1.– 2002-2003 ikasturterako diru-laguntzen zenbatekoa tarte hauen araberakoa izango da:

a) Laguntzen lehen tartean jasotako familiek 1.803,04 euro-ko diru-laguntza izango dute.

b) Laguntzen bigarren tartean jasotako familiek 1.352,28 euro-ko diru-laguntza izango dute.

c) Laguntzen hirugarren tartean jasotako familiek 901,52 euro-ko diru-laguntza izango dute.

2.– Familia berak zentro batean 0 urtetik 3ra bitarteko haur bat baino gehiago matrikulatuta badu eta aurreko ataletako ezeinetan jasota ez badago, familia honek 1.803.04 euro-ko diru-laguntza jasoko du matrikulatutako bigarren haurretik aurrera, betiere sarrera garbiek urteko 36.060,73 euro-ko kopurua gainditzen ez badute. Erditze anizkoitzen kasuan, aurreko kopurua ez da aplikagarria izango eta, edozein kasutan ere, matrikulatutako bigarren haurretik aurrera 1.803.04 euro-ko diru-laguntza jasoko du.

3.– Diru-laguntzak inola ere ezin izango du gainditu famili unitateak 2002ko irailetik 2003ko uztailera bitartean ume bakoitzeko duen kostua.

aplicará la ponderación correspondiente a un miembro más por cada persona de estas características.

4.– Las familias monoparentales, se consideran integradas por un miembro más de los que efectivamente las componen.

*Artículo 10.–* Criterios de adjudicación de las subvenciones

1.– Para la adjudicación de las ayudas la comisión de valoración tendrá en cuenta estas circunstancias que podrá ponderar de 0 a 25 puntos, con el siguiente criterio:

a) Centro situado en zonas de menor nivel socioeconómico: 5 puntos.

b) Centro público: 5 puntos.

c) Calidad del proyecto de centro: de 0 a 5 puntos.

d) Relación entre admitidos y excluidos: de 0 a 5 puntos, de manera que se consideran, 0,2 puntos por cada 1% de lista de espera, calculando la lista de espera de la matrícula del 2002-2003 sobre la matrícula total del centro

2.– En caso de que más de una unidad familiar obtenga la misma valoración, se priorizarán las que dispongan de menos recursos económicos. Se consideran unidades familiares con menos recursos económicos únicamente las comprendidas en el primer tramo de la tabla de ayudas. De entre éstas, se priorizarán las que más se acerquen a los límites de renta según número de miembros de unidad familiar previstos en las mencionadas tablas.

*Artículo 11.–* Cuantía de las subvenciones

1.– La cuantía de las subvenciones para el curso escolar 2002-2003 se ajustará a los siguientes tramos:

a) 1.803,04 euros para las unidades familiares incluidas en el primer tramo de ayuda

b) 1.352,28 euros para las unidades familiares incluidas en el segundo tramo de ayuda

c) 901,52 euros para las unidades familiares incluidas en el tercer tramo de ayuda

2.– En el caso de que una misma unidad familiar tenga más de un niño o niña entre 0 y 3 años matriculado en un centro y no esté incluido en ninguno de los tramos anteriores, recibirá una subvención de 1.803.04 euros a partir del segundo niño o niña matriculado y así sucesivamente siempre y cuando los ingresos netos no superen los 36.060,73 euros anuales. En el caso de partos múltiples, no se tendrá en cuenta el límite anterior, recibiendo en todo caso una subvención de 1.803.04 euros a partir del segundo niño o niña matriculado.

3.– La subvención en ningún caso podrá superar el coste que soporte la unidad familiar por niño/a para el período de septiembre de 2002 a julio 2003.

*12. artikulua.–* Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira helburu berarekin emandako beste edozeinekin, izaera publikoko bestelako diru-laguntzekin izan ezik. Edonola ere, ezin izango da aurreko artikuluaren 3. idatz-zatian ezarritako muga gainditu.

*13. artikulua.–* Ebazpena

1.– Gizarte Ongizateko zuzendariak, Balorazio Batzordeak formulatutako proposamena ikusi ondoren, laguntzen esleipen edo ukapenari eta laguntzen kopuruari buruzko ebazpena emango du. Ebazpena hilabeteko gehieneko epean jakinaraziko zaie interesatuei, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera kontatzen hasita.

2.– Oro har ezagutarazteko, laguntzen esleipenari eta aldaketei buruzko ebazpena Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Ongizateko Zuzendaritzan egongo da kontsulta egiteko.

3.– Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik aurrera kontatzen hasita.

4.– Ebazpena emateko aurreikusitako epea amaitu eta halakorik jakinarazten ez bada, formulatutako eskaera ezetsitzat hartu ahal izango da Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Hala ere, Legeak ezarri dio Administrazioari berariazko ebazpena eman beharra.

*14. artikulua.–* Famili unitate onuradunen betebeharrak.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50. artikuluan ezarritako betebeharrez gain, Agindu honetan arautako laguntzen onuradun diren famili unitateek ondoko betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Zentzu honetan, diru-laguntzak emateko jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean famili unitate onuradunek diru-laguntzari espresuki eta idatziz uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu dela ulertuko da.

b) Diru-laguntza emandako xederako berariaz erabiltzea eta haurra 2003ko uztailera arte zentroan mantentzea. Haurra arestian esandako data horretara arte mantentzen ez bada zentroan, bertan emandako hilabeteen arabera murriztuko da diru-laguntza.

*15. artikulua.–* Ordainketa

*Artículo 12.–* Compatibilidad con otras subvenciones

Las ayudas previstas en la presente Orden serán incompatibles con cualesquiera otras que pudieran concederse para la misma finalidad, salvo con cualquier tipo de ayuda de carácter público. En ningún caso se podrá superar el límite establecido en el apartado 3 del artículo anterior.

*Artículo 13.–* Resolución

1.– El Director de Bienestar Social, a la vista de la propuesta formulada por la Comisión de Valoración, resolverá la adjudicación o denegación de las ayudas así como la cuantía de las mismas. La resolución se notificará a los interesados en un plazo máximo de un mes, contado a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

2.– A efectos de su general conocimiento, la resolución de adjudicación de las ayudas y las de sus posibles modificaciones se podrán consultar en la Dirección de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

3.– Contra dicha resolución podrá presentarse recurso alzada ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales del Gobierno Vasco en el plazo de un mes desde la notificación de la misma.

4.– Transcurrido el plazo previsto para dictar la resolución sin que ésta se haya notificado, podrá entenderse desestimada la solicitud formulada, a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación que la citada Ley impone a la Administración de resolver expresamente.

*Artículo 14.–* Obligaciones de las unidades familiares beneficiarias.

Sin perjuicio de las obligaciones establecidas en el artículo 50 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, las unidades familiares beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente Orden deberán cumplir las siguientes:

a) Aceptar la ayuda concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las unidades familiares beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida y mantener al niño/a en el centro hasta julio de 2003. En caso de que el niño/a no permanezca en el centro hasta la fecha antes indicada, se reducirá la subvención de forma proporcional a los meses de estancia.

*Artículo 15.–* Pago

Gizarte Ongizateko zuzendariaren ebazpen bidez, laguntzen ordainketa zatika egingo da ondoko eran:

a) Lehen ordainketa diru-laguntza esleitzen den unean egingo da eta emandako kopuruaren herena izango da, behin 14.a) artikuluan ezarritako epea igarota eta uko egiterik izan gabe.

b) Gainerakoa bigarren ordainketan emango da, lehen ordainketa ziurtagiriz egiaztatu ondoren. Ziurtagirien bidezko egiaztapen hori 2003ko otsailaren 15a baino lehenago egin behar da.

c) Laguntzak Udalak edo Zentroko Zuzendaritzak adierazitako kontu batean sartuko dira. Agindu honetan araututako laguntzak jasotzeko berariaz irekiko da kontu hori. Ondoren, Zentroko Zuzendaritzak familia onuradunei dagozkien deskontuak aplikatuko dizkie. Diru-laguntzetarako berariazko kontutik zentroaren kontu orokorrerako transferentziak eta famili unitateei kobratu beharreko kuotak periodikotasun berarekin egingo dira. Nolanahi ere, laguntzak zentro bakoitzeko gastuak ordaintzeko erabili beharko dira; ezin izango dira beste xede batekin erabili eta ezin izango zaizkie zuzenean ordaindu famili unitateei.

*16. artikulua.*– Diru-laguntzaren baldintzen aldaketa.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok (betiere diru-laguntzaren xedea betetzen dela ulertzen bada) eta, hala badagokio, aldi berean helburu berarekin emandako beste diru-laguntza eta laguntza batzuk lortzeak, laguntzak emateko Ebazpena aldatzea ekarri ahal izango du. Horretarako, Gizarte Ongizateko zuzendaritzak aldaketari buruzko bidezko Ebazpena emango du eta emandako diru-laguntzen zenbatekoak egokituko dira bertan.

*17. artikulua.*– Ez-betetzeak.

Diru-laguntzak emateko oinarri diren baldintzak bete ez izanaren edozein kasu egiaztatzeak diru-laguntza galtzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari jasotako kopuruak eta dagozkien legezko interesak itzultzeko betebeharra ekarriko du, aldez aurretik bidezkoak diren prozedura-izapideak egin ondoren eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginari eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuari jarraiki, bertan ezarritako baldintzetan.

*18. artikulua.*– Errekurtsoak.

Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka, interesatuek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean, bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko

El abono de las ayudas se hará efectiva, mediante resolución del Director de Bienestar Social, del modo siguiente:

a) Un primer pago de la tercera parte de la subvención en el momento de la concesión de la misma, una vez transcurrido el plazo establecido en el artículo 14.a) sin haber mediado renuncia.

b) Un segundo pago del resto de la subvención, previa justificación documental del primero de los pagos. Dicha justificación documental habrá de realizarse con anterioridad al 15 de febrero de 2003.

c) Las ayudas se ingresarán en una cuenta proporcionada por el Ayuntamiento o por la Dirección del centro expresamente abierta para la percepción de las ayudas reguladas en esta Orden. Posteriormente la Dirección del Centro aplicará a las familias beneficiarias los pertinentes descuentos. Las transferencias de la cuenta específica a la cuenta general del centro se realizarán con la misma periodicidad que el cobro de las cuotas correspondientes a cada unidad familiar. Las ayudas deben en todo caso destinarse a cubrir los gastos de cada centro, no pudiendo ser destinadas a otro objeto ni ser abonadas directamente a la unidad familiar.

*Artículo 16.*– Alteración de las condiciones de la subvención

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas para el mismo fin podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las ayudas. A estos efectos, por la Dirección de Bienestar Social se dictará la oportuna Resolución de modificación, en la que, en su caso, se reajustarán los importes de la subvención concedida.

*Artículo 17.*– Incumplimientos

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención dará lugar, previa substanciación de los trámites procedimentales oportunos, de conformidad y en los términos establecidos en el Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobada por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre a la pérdida de la subvención y la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

*Artículo 18.*– Recursos

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vas-

Auzietako Salan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Agindu honetan espresuki aurreikusi gabeko alderdi guztietan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Oinarri Antolatzaileei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen alorrean jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen ekainaren 11ko 133/2002 Dekretuan bildutako aurreikuspenak aplikatuko dira.

***Bigarrena.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko azaroaren 5a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVIN.

I. ERANSKINA

LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN HIRU URTETIK BEHERAKO HAURREN ARRETARAKO ZERBITZUAK EGITEN DITUEN (IKASTETXE PRIBATUAREN IZENA) IKASTETXE PRIBATUAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAREN ARTEAN.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko aren (e)an

Batetik,

.....jaun/andreak, (zentroaren izena) ikastetxe pribatuaren ordezkari.

Bestetik,

Javier Madrazo Lavín jaunak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak.

ESKU HARTU DUTE

Lehenengoak, (zentroaren izena) ikastetxe pribatuaren izenean eta ordezkari.

Bigarrenak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren izenean eta ordezkari.

co en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– En todo aquello no previsto expresamente en la presente Orden serán de aplicación las previsiones contenidas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el Decreto 133/2002, de 11 de junio, por el que se regulan las ayudas para la realización de actividades en el área de los servicios sociales.

***Segunda.***– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de noviembre de 2002.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVIN.

ANEXO I

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE CENTRO PRIVADO (NOMBRE DEL CENTRO PRIVADO) QUE PRESTA SERVICIOS DE ATENCIÓN A LA INFANCIA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO PARA NIÑOS Y NIÑAS MENORES DE TRES AÑOS, Y EL DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES DEL GOBIERNO VASCO.

En Vitoria-Gazteiz, a de de 2002

De una parte

Don/doña... en representación del centro privado (nombre del centro).

De otra parte

Javier Madrazo Lavín, Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

INTERVIENEN

El/la primero/a, en nombre y representación del centro privado (nombre del centro).

El segundo, en nombre y representación del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

ADIERAZI DUTE:

Hitzarmen honen idazpuruan agertzen den ikastetxe pribatuan hiru urtetik beherako (haur-kopurua) haur d(it)uela inskribatuta irailetik, 2003ko uztailera arte geratzeko konpromisoa dutela.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren nahia dela hiru urtetik beherako haurren arretarako zerbitzua finantzatzea, betiere 2002ko ...aren ...(e)ko Aginduaren arabera (Agindu horren bitartez, hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurren arretarako zentroen sarea finkatzeko diru-laguntzak ematea arautzen da).

KLAUSULAK

***LEHENENGOA.–*** Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen helburua hauxe da: hitzarmena izenpetzen duen zentro pribatua erakunde laguntzailea dela onartzea, hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurren arretarako zentroen sarea finkatzeko diru-laguntzen ordainketa kudeatzeko; Agindu honetan araututa daude diru-laguntzok.

***BIGARRENA.–*** Alderdien betebeharrak

Batetik, hauek dira hitzarmen hau izenpetu duen erakunde laguntzailearen betebeharrak:

a) Agindu honetatik datozen laguntzak jasotzeko berariazko kontu korronte bat irekitzea.

b) Egon litezkeen onuradunen eskabideekin batera, Agindu honen 7.1.e artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztea.

c) Hiru urtetik beherako haurren arretarako zerbitzuari dagozkion gastuak ordaintzeko erabiltzea emandako diru-laguntza, onuradun bakoitzari emandako zenbatekoan erabili ere.

d) Laguntzak emateko baldintza edo betebeharrak betetzen direla eta eraginkorrak direla bermatzea.

e) Jasotako fondoak zertan erabili diren justifikatzea erakunde emailearen aurrean.

f) Erakunde emaileak eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fondo horiek nola kudeatu diren egiaztatzeko egin ditzaketen jarduerei men egitea.

Bestetik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ondoko konpromiso hau hartu du bere gain: 2002ko irailetik 2003ko uztailera bitartean haurrak eragindako kostua finantzatzea, betiere Agindu honen 11. artikuluan ezarritako tarteen arabera.

EXPONEN

Que el centro privado que figura en el encabezamiento del presente convenio, tiene inscritos desde el mes de septiembre y con el compromiso de permanencia hasta julio de 2003, a (número de niños/as) menores de tres años.

Que es voluntad del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, financiar el servicio de atención de niños y niñas menores de tres años, según los baremos publicados en la Orden de .. de ........ de 2002, reguladora de las subvenciones para el apoyo a las familias con niños y niñas menores de tres años y para la consolidación de la red de centros de atención a la infancia de menos de tres años.

CLÁUSULAS

***PRIMERA.–*** Objeto del Convenio.

El objeto del presente convenio es la aceptación de la condición de entidad colaboradora del centro privado suscribiente del mismo, a los efectos de gestionar el pago de las subvenciones para el apoyo a las familias con niños y niñas menores de tres años y para la consolidación de la red de centros de atención a la infancia de menos de tres años, reguladas en la presente Orden.

***SEGUNDA.–*** Obligaciones de las partes

De una parte, la entidad colaboradora suscribiente del presente convenio se compromete a:

a) Abrir una cuenta corriente diferenciada para percibir las ayudas provenientes de la presente Orden.

b) Presentar la documentación recogida en el artículo 7.1.e de la presente Orden junto las solicitudes de los posibles beneficiarios.

c) Utilizar la subvención concedida para sufragar los gastos correspondientes al servicio de atención a la infancia para niños y niñas menores de tres años en la cuantía otorgada a cada uno de los beneficiarios.

d) Verificar el cumplimiento y efectividad de las condiciones o requisitos determinantes para su otorgamiento.

e) Justificar la aplicación de los fondos percibidos ante la entidad concedente.

f) Someterse a las actuaciones de comprobación que respecto de la gestión de dichos fondos pueda efectuar la entidad concedente y a las que corresponden a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

De otra parte, el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco se compromete a financiar el coste del niño/a generado en el periodo comprendido entre septiembre de 2002 y julio de 2003, según los tramos establecidos en el artículo 11 de la presente Orden.

*HIRUGARRENA.–* Hitzarmena indargabetzeko arrazoiak

Bigarren artikuluan alderdien betebeharrak jaso dira. Bada, betebeharrok betetzen ez badira, hitzarmen hau indargabetu egingo da, zentro pribatua ez da erakunde laguntzailea izango eta jasotako kopuru guztiak itzuli beharko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikuluaren arabera.

*LAUGARRENA.–* Indarraldia.

Hitzarmen honek 2002ko irailetik 2003ko uztailera bitartean iraungo du indarrean.

Adierazitako guztiarekin bat daudela, hala onartu dute alderdiek

EUSKO JAURLARITZA ZENTRO PRIBATUA

Javier Madrazo Lavín, xxxxxxxxxxxxxx

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua xxxxxxxxxxxxxx

*TERCERA.–* Causas de Resolución del convenio

Cualquier incumplimiento de las obligaciones de las partes contenidas en el artículo segundo, será motivo de resolución del presente convenio, perdiendo el centro privado la consideración de entidad colaboradora, debiendo reintegrar las cantidades recibidas según lo establecido en el artículo 53 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

*CUARTA.–* Vigencia

El presente convenio estará vigente durante el periodo comprendido entre septiembre de 2002 y julio de 2003.

En prueba de conformidad y aceptación con cuanto queda expresado, las partes

GOBIERNO VASCO CENTRO PRIVADO

Javier Madrazo Lavín, xxxxxxxxxxxxxx

Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales xxxxxxxxxxxxxx

## Zk-6324

EBAZPENA, 2002ko maiatzaren 17koa, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzu zuzendariarena, EB2-1271/99-LE-000 espedientean Ricardo Requejo San José jaunak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa ebazten duena.

AURREKARIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2001eko urriaren 5eko Aginduaren bitartez, EB2-1271/99-LE-000 espedientearen babespean, hasiera eman Bilboko udalerriko Larreagaburuko b.11.7 lur-zatian dauden babes ofizialeko 152 etxebizitza esleitzeko administrazio-prozedurari. Agindu hori 2001eko azaroaren 7an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Etxebizitzok arauzko baldintzak ondoen betetzen zituzten eskatzaileei emango zitzaizkien.

2.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Bizkaiko Lurralde ordezkariak, 2001eko azaroaren 26an

## N°-6324

RESOLUCIÓN de 17 de mayo de 2002, del Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se resuelve el recurso de alzada presentado por D. Ricardo Requejo San José en el expediente EB2-1271/99-LE-000.

ANTECEDENTES

1.– Al amparo del expediente EB2-1271/99-LC-000, se inició mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales de fecha 5 de octubre de 2001, el procedimiento administrativo de adjudicación de 152 viviendas de protección oficial en la parcela b.11.7 de la Mina del Morro en Bilbao (Bizkaia), a favor de aquellos solicitantes en quienes concurrieran las condiciones reglamentariamente establecidas, y se procedió a publicar la Orden meritada en el BOPV el 7 de noviembre de 2001.

2.– Mediante Resolución del Delegado Territorial en Bizkaia del Departamento de Vivienda y Asuntos So-